



## 2016KO RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIAK



TESTUA ETA ARGAZKIA:  
**Estitxu Eizagirre Kerejeta**  
@eeizagirre

Sustrai Colinak jaso du Rikardo Arregi Sari Nagusia, ARGIAN eginiko elkarrizketengatik. Amagoia Gurrutxagak Sari Berezia irabazi du, Kristiane Etxaluzi *Jakin* aldizkarian egindako elkarrizketa-biografiagatik. Eta Unai Oiartzunek merezi izan du Kazetari Berriaren saria, *Irunero* aldizkariko erreportaje sortarekin. Argazkian, sarituak Xabier Lakaren ikurra eskuan, Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika-ko sailburuordearekin eta Ana Karrera Andoaingo alkatearekin.

Bertsotan egin zuen saritu nagusiak bere hitzaldia. Bere buruari egingo lizkioken galderak jaulkiz (zorrotzak, Colinarenak ohi direnez):

*Sariei buruz zer iritzi duzu  
zer iritzi zenuen lehen?  
Bankuan zenbat euro dituzu  
astean zenbat astelehen?  
Kuriositatez sartzen al duzu  
zure izena Googlen?  
Berdina ote zara Istanbulen,  
Bilbon eta Urepelen?*

*Agurtzen ote duzu eskalerik  
pasa ezker gertutik?  
Zer dela eta ez duzu blogik,  
ez twitterrik ez facebookik?  
Zer ikusten duzu mundua etzanda  
edo Gipuzkoa Zutik?  
Kartak nahasteko prest ote zaude  
zeu egon arren eskutik?*

*Legeen beldur bizi al zara?  
Arraina ala okela?  
Zure ustez noiz kendu beharko  
lukete gazte-txartela?  
Zezenketez zer iritzi duzu?  
Suedia ala Venezuela?  
Behin hildakoan zeinek eta non  
jarriko dizu eskela?*

*Inbidiarik sortzen al dizu  
katalanen egoerak?  
Zure etxera etortzen al da  
kanpoko garbitzaile bat?  
Zure kasuan puntu bat edo  
hiru dauzka bukaerak?  
Ta erantzuten ote dituzu  
zeuk egindako galderak?*

» ARGIA.eus-en dago irakurgai sari banaketaren kronika.

*“Zoriondu nahi zaituztet,  
astero etxera bidaltzen  
didazuen opari puskatatik.  
Ederra egiten duzuen lana”*

**Beñat Elizalde,**  
ARGIAkoa

### Bizi-Baratzea Tourrean



Gorka Izagirrearen irakurgaia da.

### ARGIAko sailekin zuzenago komunikatzeko emailak

Erredakziotik saiatzen gara gaiei gertuko jarraipena egiten, eta horretarako gaika gaude lantaldean antolatuta. Erredakziora iristen diren informazioak, abisuak, iradokizunak... lantaldeetara zuzenago iritsi daitezten, gai bakoitzeko helbide bat sortu dugu. Horrela gai horretako lantalde osoarengana iritsiko da mezua. Hauexek dira helbideak:

- ekonomia@argia.eus
- euskara@argia.eus
- gizartea@argia.eus
- historia@argia.eus
- ingurumena@argia.eus
- kultura@argia.eus
- nazioartea@argia.eus
- feminismoa@argia.eus
- zientzia@argia.eus